2002-XI-22
Número **87.** zenbakia

ELA

astekaria

# EDITORIALA

## Eguneroko lanaren saria

Udazkenarekin batera hasi zen ordezkari sindikalak berritzeko hauteskundeen aldirik trinkoena igarotzen ari da, Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) dagokionez (Nafarroan datorren urtean ere hauteskunde anitz izango da). Orain arte izandako emaitzeN eta egiteko dauden hauteskundeen aurreabisuen azterketa eginez gero, ondorio argi batetara irits gaitezke: ELAk duen nagusitasunari eutsi eta sendotu egingo du.

Iritsitako ordezkari kopuru eta portzentaje handia ez da nolanahiko lorpena; horren aniztasun handiko eredu sindikalean meritu handia du, eta sindikatuko milaka kide zein militantek lantegietan egin duten lan isil eta handiaren fruitua dugu.

Sindikatuak erdietsi duen emaitza ona, bestalde, soilik hauteskunde kanpaina egoki batekin egiten ez den beste lan bat ongi egin dela ere esan nahi du, hots, asmatu egin duela epe luzeko ildoan. Hain zuzen, behargineк aintzat hartu dute ELAk azken urteotan jorratu duen negoziazio kolektiboko eta ekintza sindikalerako estrategia irmoa, beharrezko denean enpresa edo sektore mailako gatazkari uko egiten ez diona, baita ontzat eman ere sindikatuak enpresetan eta bere egituran egin duen berrikuntza sakona.

Ez da harritzekoa, ELAk lehenago ere frogatu baitu nagusi zerbaitegatik dela; baina inork ez dio oparirik egin. Eutsiz gero, arrakasta biribila izango da.

Aukeran
ELA
Babesik sendoena

### Adolfo Muñoz, responsable de Vitoria-Gasteiz, anima a la militancia a seguir trabajando en la misma línea

# RESULTADO HISTÓRICO

**Hauteskunde-aldirik trinkoena erdira iritsi delarik, Gasteizko eskualde-arduraduna dugun Adolfo Muñoz, *Txiki*, oso pozik dago orain arte ELAk lortu dituen emaitzekin, inoiz baino hobeak izan baitira: dagoeneko hautatutako ordezkarien %31,47ra iritsi da, egundoko lehia dagoen eskualde batean gainera. *Txiki*rentzat azpimarratzekoa da ELAk enpresa-batzordeetan izan duen igoera nabarmena, batik bat gatazka egoerak bideratu dituen enpresetan, Sapem edo Gamesan, adibidez. Gasteizko arduradunak aurreratzen digunez, sindikatuaren helburua nagusitasun hori aberastasuna hobeto banatzeko erabiltzea izango da. *Txiki*k zorionak eman nahi dizkie eskualdeko militanteei, orain arteko lana bikain egin dutelako, eta emaitzak finkatzearren lanean jarrai dezaten animatzen ditu.**



**–¿Qué valoración haces del desarrollo electoral en la comarca de Vitoria-Gasteiz?**

–Hemos cerrado octubre con una representatividad del 31,47%, lo que constituye el mejor resultado histórico de ELA en la comarca. Vamos a mejorar ostensiblemente nuestros resultados en comités, es decir, en la empresa grande, lo que nos va a dar una mayor masa crítica para hacer aún mejor las cosas en el futuro; en pymes teníamos ya un nivel de implantación elevado, que mejoraremos, pero de manera no tan sensible.

En el conjunto de Alava las previsiones indican que vamos a subir, lo que consolida claramente nuestra posición de sindicato mayoritario en un territorio con particularidades respecto al resto de la CAPV o Navarra.

**–¿Qué lecturas haces de estos buenos resultados?**

–En estas elecciones nuestro proyecto sindical va a salir reforzado, no sólo por el aumento de representatividad, sino

→

# Laneko istripuen etengabeko dolua

ELAk, gehiengo sindikala osatzen duten beste indarrekin batera, zenbait bilkura egin zituen joan den astean gertatu ziren lan istripuengatik protestatzeko. Elkarretaratze hauen bitartez hildakoen senitartekoei elkartasuna adieraztearekin batera, azke naldi honetan istripuen kopuruak, bereziki eraikuntza alorrean, izan duen igoera salatu zuten sindikatuek. Era honetan, Luis Mari Arana, ELAko kideak, azpikontratazio etengabe gorantz dihoala eta honek arazoak areagotzen dituela azaldu zuen Andoainen, bertako eraikuntza lanetan gertatu ziren bi heriotzegatik protestazeko egin zen bilkuran.



cara al futuro; se ha hecho un esfuerzo muy importante de renovación de candidaturas -se han rejuvenecido y feminizado-, cuyos frutos se verán a medio y largo plazo; estamos poniendo ya, en definitiva, parte de las bases de nuestro futuro en la comarca. Es destacable, también, un aumento notorio del compromiso de esos nuevos delegados y delegadas con la línea reivindicativa de nuestro sindicato, con nuestro sindicalismo.

Otra idea importante es que donde ELA ha dado la cara, donde ha liderado conflictos, en muchos casos independientemente de cómo hayan acabado, ELA ha subido; lo hemos venido diciendo durante mucho tiempo y las elecciones no hacen sino confirmarlo, la lucha da frutos: ahí están los resultados logrados en Sapem, Gamesa, Widia y otras muchas empresas grandes, de comité, en las que gracias al conflicto hemos mejorado nuestra representatividad.




## TRANSFORMAR LA SOCIEDAD

**–Sueles hablar de la 'mayoría útil'.**

–Los trabajadores alaveses están optando entre dos modos de entender el sindicalismo, el reivindicativo, el que les puede suponer mejoras en sus condiciones de vida y laborales, y el otro, el acomodado, el que sigue la inercia de las cosas. En ese sentido entiendo que ELA es el voto útil.

Los resultados electorales de ELA son importantes porque vamos a poner esa mayoría al servicio de los trabajadores y de la sociedad alavesa; queremos transformar el mercado de trabajo, cambiar las cosas, poner coto de manera radical a las situaciones de injusticia social que padecen los sectores más desfavorecidos de la sociedad y los que más tarde se han incorporado al mercado de trabajo. Por eso es importante ganar las elecciones, y no hay que perder la tensión en ningún momento, porque nuestra mayoría va a ser útil para la clase trabajadora.

**–Después de los conflictos liderados por ELA en los últimos meses, la patronal alavesa no estará precisamente contenta con estos resultados.**

–Hay que denunciar que la patronal alavesa no se está manteniendo al margen en estas elecciones: en los últimos años ha visto claramente qué sindicato ha apostado por cambiar las cosas, por plantar cara a sus intentos de precarización del mercado laboral, y quiénes no, y ahora SEA es parte activa, entorpeciendo en muchas empresas la formación de nuestras candidaturas y favoreciendo la de otros sindicatos más afines.

Todos los sindicatos no acudimos a las urnas en las mismas condiciones y garantías, por lo que los resultados obtenidos tienen más mérito si cabe.

## LA IMPORTANCIA DE VOTAR

**–¿De qué manera se está notando el reforzamiento organizativo?**

–Mucho, evidentemente. En ese sentido quiero resaltar el excelente trabajo y la dedicación militante de toda la gente que compone la comarcal. Se está trabajando bien, con método, de manera coordinada... Los equipos de pymes junto a las federaciones han llevado a cabo un trabajo muy importante en la elaboración de las candidaturas, un trabajo sistemático realizado con antelación sificiente que nos ha permitido presentar listas en muchísimas más empresas que en citas electorales anteriores.

Los militantes son muy conscientes de que en el modelo sindical de ELA la afiliación es vital, pero que no podemos olvidar tampoco la representatividad, que es la que marca nuestra presencia en las distintas mesas de negociación, a nivel sectorial y de empresa. Una representatividad que, no me cansaré de repetir, no es un objetivo en sí misma, sino un medio para transformar esta sociedad.

**–Un mensaje final.**

–Queda otro mes duro por delante, hay que echar el resto. En el tiempo que queda debemos hacer entender a nuestros afiliados y afiliadas en todas las empresas de la importancia del voto a ELA, animarles a tomar parte activa en el proceso electoral en sus empresas, a formar parte de las candidaturas, a facilitar el trabajo de los militantes y, por supuesto, a votar a su sindicato.

Llevamos una buena línea pero queda mucho trabajo por delante.

Hauteskundeak Elecciones...

# Enpresa-batzordeetako hauteskundeen emaitzak (2002-XI-14/22)
# Resultados electorales en comités de empresa (14/22-XI-2002)

| ESKUALDEA / ENPRESA | ELA | CC OO | UGT | LAB | Besteak |
|---|---|---|---|---|---|
| **Araba** | | | | | |
| Sagola, S.A. | 3 | 2 | 2 | 1 | 1 |
| Widia Tools Ibérica | 3 | - | 1 | - | 1 |
| Atusa | 4 | 2 | 1 | 2 | 4 |
| Limpiezas Aral | 3 | 2 | - | - | - |
| **Nafarroa** | | | | | |
| Coop. del Campo Lodosa | - | 2 | 3 | - | - |
| Inabonos | 2 | - | 2 | - | 1 |
| Saint-Gobain Abrasivos | 1 | 5 | - | 3 | - |
| **Ibaizabal-Nerbioi** | | | | | |
| Theis Ibérica | 4 | - | - | - | 1 |
| Doistua | 3 | 1 | - | 1 | - |
| Cartonajes Internales. | 5 | - | 4 | - | - |
| Formica Española | 8 | 3 | - | 2 | - |
| Firestone (Usansolo) | 3 | 2 | 3 | 1 | - |
| Firestone (Basauri) | 7 | 6 | 8 | 2 | - |
| Lemona Industrial | 5 | - | - | 4 | - |
| **Ezkerraldea-Kadagua** | | | | | |
| Ayto. Ortuella | 3 | - | 2 | - | - |
| **Gernika-Durango** | | | | | |
| Egaña S.A. | 4 | 3 | - | 2 | - |
| **Oria-Goierri** | | | | | |
| Loire Sape | 4 | - | - | - | 1 |
| Carrefour (Olaberria) | 6 | 1 | - | 2 | - |
| Calcinor Altzo | 1 | - | 4 | - | - |
| Laskorain ikastola | 5 | - | - | 4 | - |
| Eskolapioen ikastetxea | 5 | - | - | - | - |
| **Urola-Kosta** | | | | | |
| Constr.Mecánicas de Precisión | 5 | - | - | - | - |
| **Deba** | | | | | |
| Telesforo Aranzadi ikastola | 2 | - | - | 3 | - |

| ESKUALDEA / ENPRESA | ELA | CC OO | UGT | LAB | Besteak |
|---|---|---|---|---|---|
| **Eskumaldea** | | | | | |
| Troquelerías Irurak | 6 | - | 1 | 2 | - |
| Zardoya-Otis (Mungia) | 5 | - | - | - | - |
| Lejarza S.A. | 4 | - | - | 1 | - |
| Ind. Ibaiondo | 4 | - | 1 | - | - |
| Leioa Wagen | 5 | - | - | - | - |
| Elmet | 3 | 2 | 4 | - | - |
| Carrefour (Erandio) | 2 | 1 | 2 | - | 4 |
| Faes Farma | 1 | 1 | 1 | 2 | 4 |
| Neiker | 3 | - | - | 1 | 1 |
| **Bilbo** | | | | | |
| Uni-2 Bizkaia | 6 | 3 | 4 | 2 | 2 |
| Eldu | 6 | 3 | - | - | - |
| IRSA | 5 | 3 | 1 | - | - |
| Constr. Electr. Consonni | 2 | 2 | - | 1 | - |
| Grupo Garnica | 2 | 3 | 5 | 1 | 2 |
| Grupo Uvescaya | 8 | 1 | 2 | 1 | 1 |
| El Corte Inglés | - | 2 | 1 | 11 | 9 |
| Continental Auto | 3 | - | 2 | - | - |
| TCSA | 2 | 6 | 8 | - | 7 |
| Col. Jesús y María | 5 | - | - | - | - |
| Gas Euskadi | 5 | - | - | - | - |
| **Oarso-Bidasoa** | | | | | |
| Hamann Internacional | 4 | - | - | 1 | - |
| ABX Logistics | 5 | - | - | - | - |
| Ama Guadalupeko Ikast. | 5 | - | - | - | - |
| **Donostia** | | | | | |
| Grupo Transportes Pesa | 4 | - | - | 1 | - |
| Constr. Antton Bilbao | 2 | 1 | 1 | 1 | - |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 7 | 6 | - | 6 | 7 |
| Euskadiko Orkestra Sinfonikoa | 5 | - | - | - | - |

## EAEko sektore publikoaren arduradunek lan-harremanetan arau demokratikoak baztertzen dituzte

# HEMEN EZ DA NEGOZIATZEN




*Ezkerretik eskuinera, Viso, Sanz eta Agirrezabala.*

**EAEko administrazioetan dauden EAJko arduradunek oinarrizko arau demokratiko eta sozialak, euren alderdiak nonbait hain kuttun dituenak, zer diren ere ez dakite. 80etako hamarkadan euskal administrazioak egituratzen joan ahala lan-harremanei buruz izan zuten ikuspegi ireki eta demokratikoa bazter utzi eta agintari jeltzaleak gero eta nahikeria eta agintekeria handiagoz ari dira jokatzen.**

Negoziazio kolektiboaren zentzua, lan kontutan euskal administrazioen beregaintasuna, ordezkaritza handiago edo txikiagoa duten taldeen pisua eta sinatzeko ahalmena, lan-baldintzak beharginekin negoziatu beharra... Printzipio guztiok zapuzten ari dira, EAEko administrazioko Mahai Orokorrean, Osakidetzan eta Eufaleban (udal- eta foru-administrazioetako hitzarmena) gertatzen ari denak frogatzen duenez.

Patxi Agirrezabala Zerbitzu Publikoen Federazioko (ZPF) idazkari nagusiak ELAren eta langileek hautaturiko ordezkaritza sindikalaren aurkako jarrera sumatzen du hainbat erabakiren atzean: "Adibidez, joan den otsailaren 20an Jaurlaritzak Mahai Orokorreko akordioa CC OOekin, hots, %18 besterik ez duen sindikatuarekin, sinatu zuen, soldaten %3ko igoera aurrera ateratzeko".

Honek aski ordezkaritza txikia duen sindikatuaren aldetik egundoko azala adierazten du, noski, baina gobernuak ere ez zuen epe luzerako asmorik, uneanuneko beharra asetuko zuen erakundea topatzea besterik. Gainera, CC OOek lorpentzat aurkeztu zuen beste hainbat puntu –langileentzako pentsio-fondoa, etab.– jorratzeko bilera bat bera ere ez dute izan.

Udal- eta foru-administrazioetako lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenean (Eufaleba) are urrunago joan ziren EAJ, PP, PSE, eta EA, urriaren hasieran "inoiz ikusi gabekoa egin zuten, sindikatuak ahaztu eta akordio politiko batez itxi nahi izan baitzuten aurrera ez zihoan negoziazio prozesua", dio Agirrezabalak.

"Sektore horretan ere negoziazio kolektiboak izan duen ibilbide oparo eta luzea arbuiatu (hogei urtetan negoziatu izan da Eufaleba), eta alderdi politikoek hitzarmena itxitzat jo nahi izan dute", dio Mari Jose Viso sektore honen arduradunak, baina beronek ohartarazten duenez, "dagoeneko lortu dugu Gatikako udalean baldintza hobeak biltzen dituen akordioa, eta honen ostean gehiago etorriko dira; negoziazioari eustea posible da, langileok jarrera tinkoa agertzen badugu".

### OSAKIDETZAREN EZINA

Osakidetzan, berriz, administrazioaren aldetik negoziatzen duten arduradunek ez dute nonbait benetako ahalmenik, negoziatzen denak ez du balio handirik. Andoni Sanz ELAren Osakidetzako sektore-arduradunak aipatzen digunez, "hasteko, osasun sailarekin eta Osakidetzako zuzendaritzarekin 2000ko uda hasieran itxi genuen aurreakordioa gobernu-batzarrak ez zuen abendura arte onartu". Gero, lanaldia 35 ordutara murriztu zelarik 700 lanpostu sortzea erabaki zen arren, "horietako 200 oraindik aidean daude". Sanzek sakoneko ildoa zein den azaltzen digu: "Funtzio Publikoaren arduradunek negoziazio kolektiboa baztertu eta aurrekontuei buruzko akordio hutsak nahi dituzte, Madrildik datozen irizpideei men egin eta –noski, euskal kutsuko itxura eman ostean– berton aplikatzeko".

Negoziatu zuten alde biek 2000 urtean jarrera hori onartu izan balute, "ez genuen hitzarmen horretan jasotako hainbat puntu lortuko: 35 orduko astea, Osakidetzako baimenak, enpleguari buruzko neurriak, ordezkapenak, autokontzertazioa, zerbitzu-enpresei buruzko arauak...".

Hura lorpen handia izan zen, baina harrezkero nonbait Jaurlaritzako finantza-zuzendaritzak oso estu hartu ditu Osasun saileko arduradunak: Sanzen arabera, "2001 eta 2002an hitzarmena negoziatzeke gaude; gutxiengo sindikal batekin Mahai Orokorrean erabaki zen %3ko soldata igoera izan da aldaketa bakarra, eta garrantzia duten hainbat puntu ez dituzte aintzat hartzen, hala nola lanpostuen balorazioa, hizkuntz-normalkuntza (honez gero hirugarren zirriborroa eman digute, baina urteak daramagu bueltaka), kolegio profesionaletan izena emateko beharra bertan behera uztea...

Azken asteotan negoziazio kolektiboa aldarrikatzeko egindako deialdietan ehundaka langile bildu ditu ELAk Donostia, Gasteiz, Barakaldo eta Bilbon. "Ez dugu amore emango, eta administrazioari ez diogu bakerik emango egoerak bere horretan jarraitzen duen artean", amaitzen du Sanzek.

### OINARRIAK ZALANTZAN

Jaurlaritzaren erabaki politikoak ELAren negoziazio estrategiari aurre egiten dio, baina ZPFko idazkari nagusiak azpimarratzen duen legez, era berean aurrekontuak orekatu nahian edo beste helburu batzuk lortze aldera "lan-harremanen euskal esparrua hutsean uzten dute eta Madrilgo aginduei jarraitzen diete, izan ere haien esanahiarekin konforme baitaude. Ez diete langileei eta hauen ordezkariei inongo errespeturik".





## Involución en la función pública

Uno de los elementos que en los inicios de los 80 dieron cuerpo al proyecto de marco propio de relaciones laborales fue la opción decidida de los responsables del ejecutivo de Gasteiz por un modelo de función pública caracterizado por el reconocimiento de la negociación colectiva como método de fijación de las condiciones de trabajo.

Pronto empezó, sin embargo, la erosión de este modelo con la imposición por el estado de normas e interpretaciones que drenan las competencias exclusivas en materia de función pública. Pero el ataque de mayor entidad no ha venido de Madrid; mucho peor ha sido el cambio de posición política del gobierno vasco, que, a partir de los 90 ha ido sustituyendo iniciativa por seguidismo, audacia política por pusilanimidad legalista, proyecto de país por administración pura y dura.

La nueva hornada -en gran parte sin proyecto colectivo, arrogante, oportunista- ha borrado de un plumazo elementos básicos del modelo como el reconocimiento de la interlocutoriedad, el valor de la negociación y el respeto de los acuerdos. Los ejemplos abundan: retraso en el cumplimiento de acuerdos, cuando no incumplimiento liso y llano, desautorización de negociadores, utilización de minorías sindicales que venden su firma para convalidar lo que ha sido rechazado por la mesa de negociación..., actuaciones todas ellas gravísimas desde un punto de vista democrático y de proyecto político.

Lo cierto es que el carácter de proyecto colectivo que tuvo la puesta en pie de la nueva administración vasca ha sido sustituido en los actuales responsables de la función pública por el fundamentalismo neoliberal en el discurso ideológico, la unilateralidad e imposición en las relaciones con su personal y la sumisión y el seguimiento en las relaciones con Madrid. Un planteamiento que, no hay que olvidarlo, cuenta a todas luces con el más alto respaldo institucional. HI



# Imanol Giraldo ELAko ordezkariak langileen kezka agertzen du

# "EITB, PROGRAMAK PRIBATIZATU NAHIAN"

**Joan zen larunbatean Euskadi Irratiak 20 urte bete zituen, eta irratiko zuzendaritzak hainbat ekitaldi antolatu ditu azken asteetan urteurren hau ospatzeko.**

Eusko Irratiko langileak (Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea, Radio Euskadi, Radio Vitoria eta EITB Irratikoak) ospakizun hau baliatu dute euren kezka azaltzeko gaur egun irrati barruko lan harremanetan egin nahi dituzten aldaketa sakonen aurrean.

## LAN-HARREMAN HIGATUAK

Imanol Giraldo ELAko ordezkariaren esanetan, lan harreman horien izaera publikoa higatu duten neurri ugari hartu ditu EITBko zuzendaritzak urtea joan eta urtea etorri. Aldi baterako kontratuak nahikoa ez zirela, harreman merkantilak zabaldu ditu, betiere bateko eta besteko kontratuak hitzartzerako garaian inolako lehiaketa publikorik egin gabe. Egunotan, berriz, programazioko zati baten produkzioa kanporatzeko ekimena du esku artean, obrarako kontratuekin aurrera jarraitzerik ez dagoela aitzakia hartuta.

"EITBko gaur egungo zuzendaritza enpresara iritsi zenean lan harremanetan bestelako aldi bat hasiko zen esperantza bagenuen. Itxaropen hori ordea zeharo zapuzturik geratu da programazioaren zati bat azpikontratatzeko eta zedarri diren programak kanporatzeko erabakiarekin. Erabaki horrek, gainera, ondorio larriak dakarzkie lan kontratuei".

Eusko Irratia, gizartearen ondare den aldetik eta diru publikoak ordaintzen duela kontutan hartuta, bere oinarrien gainean zutitu behar da sendo. Oinarri horiek ezin zaizkie esku pribatuei eman, ELAren ustez. Irrati publikoak eredu izan behar du –dio Giraldok- bai programazioari dagokionean eta baita kontratuetako baldintzei dagokienez.

## Argitalpenak Publicaciones




### EGOERAREN AZTERKETA ETA GAI MONOGRAFIKOAK ARGITARATU DIRA

**Manu Robles-Arangiz Institutuaren bi agerkariren azken alea kalean da: batetik, 87. *Ekonomi Egoeraren Azterketan* EAEko langabeziaren igoera, prezioen etengabeko gorako joera, PFEZaren erreforma eta ELAk Jaurlaritzaren Etxebizitza Planari egindako ekarpenak aztertzen dira. Bigarrenik, 22. *Gai Monografikoak*en globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduaren mobilizazioak jorratzen dira (Porto Alegre, Bartzelona, Johannesburgo eta Florentzia), horien inguruan ELAk eta beste hainbat jendek egin dituen artikulu eta testuak bilduz.**

## Labur Breves...

### ● Garzonen kriminalizazio kanpaina

German Kortabarria, komunikazio arduradunaren esanetan, Garzonek HBren Mahai Nazionalean izan ziren 19 batzarkide inputatzeko aurkeztu duen azken autoa "ezker abertzaleen kontra daraman kriminalizazio eta jazarpen kanpainaren barruan kokatu behar da". Argi dago irudimen handikoak batzutan eta are eta ikaragarriagoa bestetan direla Garzonen autoak, Kortabarriaren iritziz.

### ● Visita de UGT-Sario

Laabida Cherif, responsable de cooperación y organización de UGT-sario ha visitado Euskal Herria invitado por ELA. Cherif ha expresado la confianza de su pueblo en el nuevo plan de paz de la ONU, que deberá estar listo antes de fin de año y con cuya aplicación esperan convertirse en un estado libre e independiente.

### ● Exigen que VW retire los 590 despidos

La sección sindical de ELA en Volkswagen-Landaben defenderá la convocatoria de una huelga indefinida en la empresa si la dirección no retira el expediente de rescisión de 590 contratos presentado el pasado 15 de noviembre y mantiene sus pretensiones de flexibilidad. ELA, que ha calificado la actuación de VW de chantaje puro y duro, propone que si la bajada de producción para el 2003 es real se solicite un ere para los 21 días de menos producción, prejubilaciones así como un compromiso plurianual de fabricación e inversiones.

### ● Nueva huelga en Petronor

La plantilla de Petronor ha iniciado el viernes su cuarto periodo de huelga en defensa del convenio colectivo, periodo que finalizará este miércoles y que está siendo secundado mayoritariamente por los trabajadores de la refinería de Muskiz que, entre otros aspectos, exigen un incremento salarial del IPC+50% para cada uno de los dos años de vigencia, una reducción de jornada de 40 horas, el rejuvenecimiento de la plantilla y la contratación de 20 personas.

### ● Huelga indefinida en Gamesa Eólica

La plantilla de talleres de Gamesa Eólica ha entrado en su segunda semana de huelga indefinida ante el incumplimiento por parte de la dirección de aspectos fundamentales del pacto en vigor. La empresa no ha presentado los requisitos para los ascensos y promoción interna, lo que ha impedido equiparar salarios y estabilizar el empleo. ELA denuncia el alto grado de precariedad, la enorme rotación de los trabajadores, además de deficiencias en materia de salud laboral.

### ● Ericsson no negocia

Ericsson ha dado por finalizado el periodo de consultas con los sindicatos tras la presentación hace un mes de un expediente por el que pretende reducir la plantilla actual en un 50%. La sección sindical de ELA acusa a la dirección de falta de voluntad negociadora al tiempo que denuncia que "el actual expediente contiene las mismas causas que el de hace unos meses y, además, para el año 2003 mantienen las previsiones que mostraban en el Plan Industrial que garantizaba la continuidad de la planta de Zamudio y de los 180 puestos de trabajo".

Aukeran ELA Babesik sendoena

ELA astekaria
Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00

Franqueo concertado
n.° 08/207